

2024ko apirilaren 18an

EUSKARA KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Paule Sanchez (EAJ-PNV)

BATZARKIDEAK

Pello Zabarte (Berbaro elkarte)
Sonia Oceja- (Durango Kirol taldea (atletismo taldea))
Maialen Estibez (Sapubike)
Jorge Varela (Herriaren Eskubidea)
Oiber (Nevers ikastetxea)
Gotzon (Durango Rugby taldea-Jesuitak)
Beñat Gaztelurrutia (Gerediaga elkarte)
Nerea (San Antonio ikastetxea)
Nerea (San Antonio ikastetxea)
Jone (Mugarra Triatloi taldea)
Oihana (Landako eskolako guraso elkarte)
_____ (Mendiola klub automobilistiko)
Urko Rodriguez (Kurutziaga ikastola)
Goiuri Aginako (EH BILDU-Durango)
Mikel (Durangoko Kulturala)
Jose Angel Orbegoza (DES-SVD)
Josu (Gu Lagunak futbol sala taldea)
Iker (Durango Jai alai-zesta punta)
Mikel Iria (Ezkurdi kirol taldea)
_____ (Kurutziaga ikastola)
Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailea)
Ainhoa Zabarte (udaleko euskara dinamizatzailea)

IDAZKARIA - Juan Antonio Atutxa (udaleko euskara teknikaria)

Tokia:	Durangoko Elkartegia
Izaera:	Ohikoa
Hasiera ordua:	18:30
Amaiera ordua:	19:10

Bilerari hasiera eman zaio eta Kontseiluko presidenteak hitza hartu du, aurkezpena egiteko. Ongi etorria eman die denei eta denbora baten geldirik egon den kontseilua martxan jarriko dugula adierazi du. Jarraian, nork bere burua aurkezteko tarte zabaltzen du.

Euskara kontseiluko presidenteak berak batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertzen dira:

1. BAT.- AURKEZPENA.

Nork bere burua aurkeztu du eta jarraian **Paulek** gai ordena azaldu du: Kontseiluaren nondik norakoak, helburuak eta funtzionamendua, eta azkenik, zalantzak argitzeko tarte.

2. BI.- NONDIK NORAKOAK-IBILBIDEA

Tonik hitza hartu du eta orain arteko 3 euskara kontseiluen nondik norakoak eta ibilbidea azaldu ditu, honako hauek zehaztuz: datak, bilera kopuruak, partaideak, helburuak eta lorpenak.

Aipatutako orain arteko kontseiluaren ibilbidea eta nondik norakoak *I.Eranskinean* laburbilduta daude (6.or.).

3. HIRU.- ARAUDIA ETA FUNTZIONAMENDUA

Ainhoak kontseiluaren araudia eta funtzionamendu orokorra azaldu ditu batzarkideei banatutako dokumentua oinarri hartuta.

Bestalde, bozka emateko aukera nork duen azaldu du gainera.

Azaldutako araudia eta funtzionamendua *II.Eranskinean* azalduta daude (8.or.).

Azpimarratu du helburu potoloena Durangon euskara sustatzeko ekintza plana (ESEP) berriztea dela, izan ere, 2019-2022rako plana iraungita eta luzapenean dago eta epe laburrera ekintza plan berria sortzea da kontseiluaren helburu garrantzitsuenetako bat, bertaratutako guztien ikuspuntuak kontuan hartuta. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak 10 urtera begira sortutako AROA marko estrategiko berria aurkeztu du; euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoa, hain zuzen. Honek dakarren aldaketa da euskararen eremuko eragileei erreferentzia egiteaz gain, euskararen zeharkakotasunak hartzen duela garrantzia.

Udalaren asmoa 2024an ESEP berria onartzea dela gaineratu du.

Bileren maiztasunari dagokionez, esan du gutxienez 2 hilerik behin batzea dela helburua edo behintzat horrela dagoela jasota euskara kontseiluaren funtzionamendu araudian. Gure asmoa da udara aurretik beste pare bat bilera egitea, hilean behin, eta gero beharrianen arabera batuko gara. Batzartzeko, leku hau (Elkartegia) mantentzea da asmoa. Gaineratu du, nahi duenari hau guztia ondo azaltzen duen funtzionamendu araudia dokumentu luzea bidaliko zaiola emailaz, lasai irakurri ahal izateko.

Azalpenak eman ondoren, Euskara kontseilura gonbidatuta egon direnak aipatu ditu: euskara saila, kultur elkarteak, kirol elkarteak, hezkuntza, gazteria... eta eskerrak eman dizkie bertaratzeagatik, kontseiluan beraien presentziak duen garrantzia azpimarratuz. Kirol eta hezkuntza arlotik etorri direnei aipamen berezia egin die, bertan biltzen baitira Durangoko haur eta gazte asko, eta Durango euskalduntzeko bide horretan lan egin nahi bada, ezinbestekoa da, ESEP diseinatu eta aurrera eramateko, ahalik eta esparru gehienetako jendea batzea eta denen iritziak kontuan hartuz lan bateratua egitea.

Horrekin lotuta, bertaratuei eskatu die bilerara etorri ez diren elkarte eta inguruko eragileei kontseilura batzeko gonbidapena luzatzeko.

Bukatzeko, hurrengo lan bilerak maiatzean eta ekainean egingo direla aurreratu du.

Paulek Ainhoak esandakoak berretsi ditu.

4. LAU.- HURRENGO BILERAK

Paulek hitza hartu du udara arteko datozen lan bilerak noiz eta non izango diren zehazteko: **maiatzaren 16an eta ekainaren 13an, 18:30etik 20:00ak arte, Elkartegian.**

Bilerak hasi eta bukatzeko puntualak izaten saiatuko garela esan du. Gainera, aurrera begira bileretara etorriko garen ala ez konfirmatzeko eskatu du, bilerak eta lan dinamikak prestatzeko denontzat erosoan izan dadin.

5.BOST.- GALDE-ESKEAK

Beñat Gaztelurrutiak aipatu du banatu den funtzionamenduaren dokumentuan akats bat dagoela, bilerak Berbagunean izango direla jartzen baitu, eta badaezpada inor konfunditu ez dadin. **Paulek** arrazoia eman dio paperean gaizki dagoela esanez eta ikasturtea bukatu arteko bilerak Elkartegian izango direla gogoratu du. Momentuz leku

hau mantenduko dela esan du, eta gero jende kopuru eta beharrianen arabera bertan jarraitu edo lekuz aldatzea baloratuko dela esan du.

Beñatek berriz hitza hartu eta galdera orokor bat bota du, eta besteren batek ere galdera bera luzatu du: Zer da zehazki ESEP berria, hau da, zer da AROA? Nondik dator?

Ainhoak honakoa erantzun dio: AROA Jaurlaritzak sortu duen euskararen sustapenerako marko estrategiko berria da, hainbat arlo ikutzen dituen eta euskararen zeharkakotasunari lekua ematen diona.

ESEPa Durangora ekarrita, hainbat alor kontuan hartzen dituen.

Zenbait adibide jarri ditu:

- Kirolean nola sustatu daiteke euskara? Zer da beharrezkoa Durangon? Nolakoa da Durangon kirol esparruan dagoen euskararen egoera?
- Etorkinen kasuan, Durangok ba al du harrera protokolorik? Bai/Ez? Behar du/Ez? Zer leku du hor euskarak?
- Hezkuntzan edo gazte arloan (adib. durangar gazteei zuzendutako aisialdia, udalekuak...) Horiek nola hartzen dute euskara kontuan?

Laburbilduz, esan du helburua Durangoko esparru desberdinen euskarari dagokion argazki orokor bat edo diagnostikoa egitea dela eta hemendik 4 urterako helburu batzuk markatu, eta ekintza planak, kudeaketak, urtez urteko plangintzak... egin.

Paulek gaineratu du behin helburuak markatuta ditugunean adierazleak identifikatu eta jarraipena egin behar dela. Helburua Durango euskaldunagoa izatea da eta bide hori guztion artean egin behar dugula gogorarazi du. Bakoitzak ekintzak bere kabuz egiteaz gain, hobe denon artean lan egin, oihartzun gehiago izan dezakeelako.

Tonik orain arteko planetan egon diren bi arlo nagusiak azaldu ditu:

1. Udal barruko euskara plana, hau da, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko plana. Horrez gain, udal barruko lana ere euskaraz izatea da helburua: lan hizkuntza eta sortze-hizkuntza euskaraz izatea, alegia.
2. ESEP edo udalerriko plana: 7 esparru sartzen dira eta horregatik gonbidatu ditugu denak Kontseilura: kirola, kultura, etorkinak, ikastetxeak eta helduen euskalduntze-alfabetatzea, hedabideak, IKT eta merkataritza. Esparru bakoitzerako helburu estrategikoak markatu eta horren baitan ekintzak proposatzea da asmoa. Guztien lana eskertuko dela eta ideia berriak edo ekintza berriak proposatzea aberasgarria izango dela esan du.

Lehen aipatutako zeharkakotasunari dagokionez, interesgarria dela adierazi du, arlo batzuetara erraz heltzen garelako, baina beste batzuetara heltzea -kirola adibidez- zailagoa delako.

Ainhoak argitu nahi izan du gaurkoan ESEPen zentratu garela edo hori jarri dugula helburu bezala, oso garrantzitsua delako, baina kontseilua hortik haratago ere badoala. Jendearen kezka batu, gai konkrituak landu, eztabaidatu etab. egiteko aukera egongo dela azaldu du.

Bilera hasieran banatu diren bozken (ordezkaritza-papera) paperei dagokienez, hurrengo saiora beteta ekartzeko edo gonbidapena jaso duten helbidera argazkia bidaltzeko eskatu die bertaratuei.

Beñatek poztasuna adierazi du Euskara Kontseilua berriz martxan jarri delako eta jende asko batu garelako. Bestalde, ESEP egiteak duen garrantzia aldarrikatu du.

Eskatu du, deialdia Udaletik datorrenez, ahalegina elkarte/eragile/norbanakoei eskatzen zaien bezala, Udalak ere egin dezala, hau da, Udalekoak harkorrak izan daitezela hemen egingo den lanarekiko eta balio dezala praktikan jartzeko. Ahalik eta praktikoena izatea eskatu du, ESEPa arlo asko barne biltzen dituelako, beraz, lehentasunak finkatu beharko direla uste du.

Tonik erantzun dio araudian Kontseiluak autonomia funtzionala duela jartzen duen arren, horrek ez duela esan nahi udalaren menpe ez dagoenik, herrigintza batzordera atxikita baitoa. Herrigintza batzordea ere ez da erabakiak har ditzakeen organoa, batzorde aholku-emailea denez, irizpenak edo diktamenak ematen ditu. Erabakiak hartzeko gaitasuna duten organoak Gobernu Batzordea eta osoko bilkura dira.

Beraz, Euskara Kontseilutik ateratako proposamenak herrigintza batzordera doaz, eta bertan onespina ematen bazaie, organo eskudunetara igortzen dira, hala baderitze, onetsiak izan daitezen, hau da, Gobernu batzordera edo osoko bilkurara. Bide horixe jarraitu dute, esaterako, euskararen udal araudiak, ESEP planak eta antzekoak, osoko bilkuran onartu baitira.

Paulek ere hitza hartu eta honako hau esan du: Hona deitu badugu, garrantzi handia duelako da. Ez gaude hemen denbora galtzeko asmoarekin. Lanketa gogorra izango da, baina denok dugu helburu bera: Durango euskaldunagoa izatea, eta helburu hori betetzeko zer egin behar den informatzera etorri gara ona.

Kontseilura etortzea ez dela derrigorrezkoa gaineratu du, baina konpromisoa eskatu duela, alegia, egiten dugunak eragina izango duelako eta onerako izango delako.

Batzarkideak lanerako motibatu ditu eta berriz aipatu du, inor faltan botaz gero, gonbidapena luzatzeko.

Bukatzeko, berriro gogoratu ditu udara arteko datozen deialdiak eta eskerrak eman dizkie bertaratu diren guztiei.

Ainhoak hurrengo bilerarako deialdia eta gai ordena bidaliko ditu, data hurbiltzen denean, eta horrekin batera ESEP planaren laburpena bidaliko du datorren astean.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, euskara kontseiluaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut.

I. Eranskina

Durangoko Udalaren Euskara Kontseiluak

2001 – 2004 urteak

Partaideak

- Udaleko ordezkariak
- Udal Euskaltegia eta euskara zerbitzuko teknikariak
- Elkarateak: Gerediaga, Eraz, Berbaro eta AEK

Euskara kontseiluak 2001eko martxoaren 28an egin zuen lehenengo batzarra, eta azkena 2004 maiatzaren 4an. Guztira, 10 batzar izan ziren.

Egindakoak

- Diru-laguntzen banaketa
- *Guk Euskeraz* hitzarmena (+ Dendak, konpromisoak elkarrekin...)
- Euskara sailaren aurrekontuak
- Euskara zerbitzuaren lehen kontratazioa (2001 urtea)
- EBPN plana onartzea: 2005-2008 urtealdia

2017 – 2019 urteak

Partaideak

- Udaleko ordezkariak
- Udal Euskaltegia eta euskara zerbitzuko teknikariak
- Elkarateak eta ikastetxeak: Gerediaga, Anboto, Berbaro, Plateruena, AEK, EHE, Ibaizabal ikastola, San Jose Jesuitak
- Norbanakoak: Marisa Barrena eta Aitzol Gaztañazatorre.

Euskara kontseiluak 2017ko apirilaren 3an egin zuen lehenengo batzarra, eta azkena 2019ko otsailaren 27an. Guztira, 14 batzar izan ziren.

Egindakoak

- Euskara kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudia lantzea eta onartzea.
- Kale neurketaren diagnostikoa eta aurkezpena.
- Euskarak 365 egun egitasmoa
- Euskaraldia
- ESEP plana onartzea: 2019-2022 urtealdia

2021 urtea

Partaideak

- Udaleko ordezkariak
- Udal Euskaltegia eta euskara zerbitzuko teknikariak
- Elkarateak eta ikastetxeak: Gerediaga, Anboto, Berbaro, AEK, Ibaizabal ikastola, San Jose Jesuitak.
- Norbanakoak: Aitzol Gaztañazatorre.

Euskara kontseiluak 2021eko apirilaren 20an egin zuen lehenengo batzarra, eta azkena 2021eko ekainaren 8an. Guztira, 4 batzar izan ziren.

Egindakoak

- Euskara kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren berri ematea.
- Aurreko urteetan egindakoaren berri ematea.
- 2010 urtean onarturiko Euskararen Udal Araudia berriztatzeke proposamena.
- Euskararen Udal Araudi berria lantzea eta onarpen-proposamena egitea, aurreko araudiari moldaketak edota berrikuntzak proposatuz eta, betiere, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzea arautzen duen 179/2019 Dekretuan ezartzen dena aintzat hartuz.
Hilabete eta erdiz jardun genuen egiteko horretan eta, lau batzar egin ostean, proposamena helarazi genion Udaleko Herrigintza batzordeari, eta honek aldeko irizpena eman zuen.
- Azkenik, Udal Osoko Bilkurak 2023ko otsailaren 22an onartu zuen araudi berria, eta 2023ko maiatzaren 5ean argitaratu zen BAOn.

II. Eranskina

DURANGOKO UDALEKO EUSKARA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA (laburpena)

IZAERA

- Organo aholku-emailea da, Herrigintza batzordeari atxikia
- Ez dago udal korporazioaren menpe, hots, autonomia funtzionala du.

FUNTZIOAK

- Durangoko euskararen plan estrategikoak diseinatzeko eta garatzeko laguntza eta aholkularitza ematea.
- Durangoko udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.
- Hala iritziz gero, lantaldeak era ditzake gai zehatzak lantzeko.

OSAKETA

Pertsona juridikoak: elkarteak, erakundeak edo fundazioak

- Legez eratuta egon behar dute
- Durangon helbideratuta egon behar dute.
- Euskara bultzatzeko jarduerak egin behar dituzte.
- Irabazi asmorik gabekoak izan behar dira.
- Ordezkarria eta ordezkoa izendatuko dituzte.
- Ordezkariek ahotsa eta botoa izango dute
- Ordezkariek euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute.

Pertsona fisikoak: euskararen aldeko ekimenak egiten dituztenak

- Ordezkarria eta ordezkoa izendatuko dituzte.
- Ordezkariek ahotsa eta botoa izango dute.
- Ordezkariek euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute.

Udaleko ordezkariak

- Herrigintza batzordeko zinegotzi delegatua, presidente lana egingo duena (Paule Sanchez). Ahotsa eta botoa izango ditu.
- Udaleko talde bakoitzeko ordezkari bat. Titularrak ordezkoa izenda dezake. Ahotsa izango dute baina botorik ez.
- Udaleko ordezkariak euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute.
- Euskara saileko teknikaria (Toni Atutxa), kontseiluko idazkari-lana egingo duena. Udaleko dinamizatzailea (Ainhoa Zabarte) eta trebatzailea (Alazne Arando) ere joan ahal izango dira batzarretara. Hiru hauek ahotsa izango dute baina botorik ez.

Pertsona adituak

- Euskara kontseiluak euskararen normalizazioan dabiltzan pertsona adituak dei ditzake gaiz zehatzak aztertzeko. Ahotso izango dute, baina botorik ez.

KONTSEILUAN PARTE HARTZEA

- Kontseiluan parte hartu nahi duten pertsona juridikoak zein fisikoak kontseiluko presidenteari bidaliko diote kontseiluan parte hartu ahal izateko eskabidea.
- Elkarte, erakunde eta fundazioek ordezkariaren eta ordezkoaren izena jasoko dute eskabidean.
- Pertsona fisikoek honakoa jasoko dute:
 - a) Izena eta bi deitura
 - b) Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea
 - c) Helbidea eta harremanetarako telefonoa

KONTSEILUAREN EGITURA

- **BATZAR NAGUSIA:** presidentea, idazkaria, pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta udal taldeetako ordezkariak.
- **Funtzionamendua:** Gutxienez, bi hilabete behin bilduko da. Deialdia presidentek egingo du. Batzarrak, besterik adierazten ez den bitartean, **Elkartegian** egingo dira. Batzar eguna, ordua eta aldizkakotasuna lehen batzarrean adostuko dira.
- **Gai-zerrenda:** Presidenteak egingo du, kontseilukideek egindako proposamenak aintzat hartuta.
- **Quoruma:** Kideen herenak egon behar du batzarrean. Presidente eta idazkaria, edo berauen ordezkariak, beti egon behar dira.
- **Erabakiak:** Adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da, eta bertaratu direnen gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak.
- **PRESIDENTZIA:** Udaleko zinegotzi delegatua izango da presidentea, alkateak halaxe izendatua (Paule Sanchez).
- **PRESIDENTEORDEA:** Kontseiluko kide bat izango da presidenteordea. Elkarte sarea ordezkatzeko du, eta partaide guztien artean aukeratuko da. Presidenteorde kargua urtero txandakatuko da kontseiluan parte hartzen duten elkarte guztien artean.
- **IDAZKARIA:** Udaleko euskara teknikaria (Toni). Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa egingo du.